

Mondragon Unibertsitateak ekodiseinuaren aukeren inguruko jardunaldia antolatu du

2013/03/06

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Berrikuntza diseinu industrial zentruak bultzatuta, Ihoberen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, I+G arduradunei, I+G langileei, produktu eta prozesu ingeniariari zuzendutako jardunaldi hau dohakoia izan da.

Gero eta enpresa gehiagok, zerbitzu eta produktuen diseinua eta berrikuntza ez ezik, beren garapenek industrian eragindako hobekuntza ekonomikoak eta ingurumenaren alorrekoak ere hartzen dituzte aintzat lan egiteko. Automobilgintzari lotutako punta-puntako zenbait enpresak, **Cegasa**, **Fagor Automation**, **Fagor Ederlan** eta **CIE Automotive**, ekodiseinuko eta ekoberrikuntzako esperientziak azalduko dituzte. Gainera, Ihoberen Euskadiren egungo egoera eta sektore publikoaren eta pribatuaren lankidetzaren bidez euskal industrian ekodiseinua bultzatzeko estrategia azalduko ditu.



Ekodiseinu Jardunaldia